

**MUSIKA.** Haren musika berriak eta pentsamendu politiko kritikoak eskola egin zuten mundu zabaleko musikan

# Agur, punkaren mito bati

Herenegun hil zen Joe Strummer The Clasheko abeslari, konpositore, eta gitarrista izandakoa, bihotzekoak jota

Amagoia Mujika | DONOSTIA

Punkaren aitzindarietako bat, belaunaldi bat baino gehiagoren musikaren eta pentsamenduen inspirazioa izan da Joe Strummer The Clash talde ezaguneko konpositore, abeslari eta gitarrista izandakoa, eta atzo haren orrialde elektronikoren bitartez hil zelako berria zabaldu bezain laster, mundu osoko jarraitzaileen eta miresleen doluminak jasotzen hasi ziren senitartekoak eta lagunak. Aderazi dutenez, ustekabeen, bihotzekoak jota hil zen herenegun bere etxean, Somerseten. Berrogeita hamar urte zituen Strummerrek.

Musika egiten hilko zela zioten, hura gogoan, jarraitzaileek idatzitako hamaika mezuak, eta era horretara hil zen ezin jakinik ere, musikari loturik bizi izan zen azken arte. Duela hila-bete eskas amaitu zuen mundu bira egungo taldearekin, The Mescalerosekin.

Baina Joe Strummerren ize-na hitzetik hortzera 80eko hamarkadan erabili zen, txoko guztietan *Should I stay or should I go now*, *London calling* edo *White riot* eta beste hainbat kantutuz entzuten hasi zirenean. Arrazismoaren kontrako aldarriak eta jarrera ezkertiarak islatu zituen The Clashen emandako abesti onenetan, baina haren pentsamendu kritikoak irrati komertzialenetan ere goia jotzeko moduko musika indartsu eta berria eragin zuen. Ez zion arrakastak, berriz, izaera aldarazi, The Clashen musika eraldatu eta aberasteko eskaintzak




## THE CLASH

**Hasi eta laster bilakatu zen arrakastatu punk soinuari reggaea eta rockabillya eransten zion talde hura**

bazterrean utzi baitzituen, The Clash ez zuen-eta zentzurik doinu zuriagoak landuz gero. 1976an sortu eta handik hamar urtera desagertu zen arte, sei diskorekin musikaren historian sartzea lortu zuen.

### Mick Jonesen izenari loturik

1970ean Londresko kaleetan jotzen zuen Strummerrek, artean John Graham Mellor izena zuela —geroago hartu zuen Joe Strummer—, 101'ers pub-rock taldea sortu zuen arte. 1976an, taldeak nolabaiteko oihartzuna zuenean, Sex Pistols-en kontzertu batera joan zen, eta doinu haiek entzunda erabaki zuen ja pubetako rock taldeak berea egin zuela. 101'ers utzi eta gutxira Mick Jones ezagutu zuen —London SS taldean zegoen orduan—, eta The Clashen ibilbideari ekin zioten biek. Erresuma Batuan hasi, eta laster bila-



YUI MOK / EPA

**PUNKAREN MAISUA.** Joe Strummerren musika inspirazio iturri izan da mundu zabalean; goiko argazkian, Fermin Muguruzarekin ageri da.

katu zen arrakastatu; punk soinuarekin nahasturik soinu bitxi eta berria sortzen zuen talde hari jarraitzaileak perretxikoak bezala atera zitzaizkion, musikarekin batera haren mezu ezkertiar indartsuak erakarririk. *The Clash* (1977), *Give 'Em En-*

*ough Rope* (1978) eta *London Calling* (1979) diskoak punkaren klasikoak bilakatu ziren atera eta berehala, eta rockaren munduan hedatzen hasi zen taldearen eragina. 1980an *Sandinista!* diskoarekin sekulako arrakasta lortu zuten AEBetan, eta baita 1982an egindako

*Combat Rock*-ekin ere. 1983an, berriz, Mick Jonesek taldea utzi zuen, eta Strummerrek jarraitzea eman nahi izan zion, baina antza, bikotearen beharra zuen talde hark, eta *Cut the Crap* 1985ean egindako diskoak ez zuen arrakastarik izan; hurrengo urtean taldea desagitea erabaki zuen Strummerrek. Orduz geroztik hil arte proiektu anitzetan parte hartu du, tartean baita zineman egindako hainbat lanetan ere, aktore eta musika sortzaile gisara.

Musikariaren sormen lanak bezalaxe bere izaerak ere miresmen handia eragin zuen mundu zabalean, kontsekuentea baitzen egiten zuenarekin. Ankaran (Turkian) jaio zelarik, —aita diplomatikoa zuen—, klase sozial ertain batean egin zituen haurtzarora eta gaztarora. Musika eta gitarrarenganako lilura zuen haur hark, eta ez zuen oztoporik izan Arte Zentroan sartzeko, baina ikasketa akademikoekin oso gustura ez, eta nahiago izan zuen kalean hezi.

The Clash ezagun egiten ari zela, 1977an CBSekin hamar disko egiteko hitzarmena sinatu zuen, baina ez zuen kontratua bete, «aspertu» egin baitzen haiekin. «George Michaellek zuen kontratu bera neukan, eta hura epaitegietan nola txikitzen zuten ikusi nuen», azaldu zuen elkarrizketa batean. «Michaellek egiten zuenarekin ados nengoan, eta horregatik erabaki nuen kontratua haustea». Gertaera hori eta beste asko ditu gogoratzeak haren bizitzarako jarrera ezinbestean musikan islatu zuen artistak.

IRITZIA

Paddy Rekalde ■ IDAZLEA

## Lubakietako punk-rock...

**J**oe Strummer. The Clash-en ahots nagusia... telekaster *rebel* bat besarkatzen punk-rock-reggae-rap musikaren negozio ilunean. Hona etorri zen, Anoetara, eta gose greban zeuden andaluziar nekazari umilei eskaini zien kontzertua, berak hain maite zuen Lorca haren inguruko. Joe Strummer, The Clash... gauza bera... punk-rock-a eta matxinada, eta Iraultzari besarkada. Ezin ulertu Euskal Herriko garai hura, badakizue, Hertzainak eta Kortatu, eta NG, beste horren-

beste... The Clash, Joe Strummer ezagutu gabe. Ezin ulertu Mano Negra zein Rage Against The Machine... The Clash, Joe Strummer ezagutu gabe. Rock The Casbah M. Antzaren *Ehun ginen* poema zoragarri hartan. Hertzainak-ek bertsiolateatutako *I Fought The Law- Legea borrokatu nuen* hura, edota *Jimmy Jazz*, esaterako.

Joe Strummer-ek eta bere lagunek oso bestelako giroa ekarri zioten musikari: musika egin daiteke testu konprometituekin, lubakietako testuekin... eta

gogoratu baino ez, esaterako, hemengo Gerra Zibileko borrokalariak —*Spanish Bombs* zein arrazakeria *The Guns of Brixton*—... eta aldi berean mestizaia guztiak batu eta bosteko *rebel* ederrak atera Europa *seguru* eta *hotz* honetan. Ezin aipatu kanta bakoitza, ze, azken finean, euren kanta guztiak balak ziren, borrokarako deiak, salaketa manifestuak... eta erritmo ezin biziago batean joak. Ezin gehiago eskatu.

Gazte-gazterik ezagutu nituen Joe eta bere Clash-kideak, sandinismoa aldarrikatzen munduan zehar... orduan Sandino nor zen ez genekiela. Hantxe agertzen ziren eurak, alkandora beltzetan izar gorriak, eta ondoan Farabundo Martiren banderolak... eta bafleetan

punk-rock topean, eta dub, eta funk eta rap... martxa eta borroka, azken finean.

Joe Strummer-ek argi erakutsi zuen musikak ere iraultza behar zuela, bai erritmoetan bai testuetan, benetako punka ez zela argazkietarako apaintzen ziren *pailazo* gangardun haien kontua, ezta Sex Pistols-ek lortu nahi zuen negozioa ere... nahiz eta gurean, orain ospatu den 25. urtemugan, horixe besterik ez argitaratu, baina, tira, gazteentzako (?) publikazio horiek ez liokete Joe-ri inoiz ulertuko. Revolution Rock zein Rebel Waltz... ez lukete ez bata ez bestea ulertuko. Strummerrek eta Clashkideek sutan jarri nahi zuten eszenatoki bakoitza... kontzertu bakoitza... dantzari zen izar gorri baten pean.